

ZER
ALDIZKARIA

399n. zenbakia
2013 ABENDUA

**Bizkaitarrei
Bizkaieraz**



www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com

Aurtxo polita

Aurtxo polita seaskan dago,
zapi xuritan txit bero.
Amonak dio: ene potxolo,
arren egin ba lo.

Txakur aundia etorriko da
zuk ezpadazu egiten lo;
orregatik, ba, ene potxolo,
egin agudo lo.

Lo, lo, lo!!



LANDAJUELA,
Anton, XI. atala



Gaztaiña-saltzaille zaarra
2012ko SARI LEIAKETA, bostgarren saria

Zorion eta urte barri on

Euskalerrian euskeraz EUSKERA ZALEAK

2013-2014 IKASTURTEA

BIZKAIERAZ 46. IKASTAROA IRU MAILLA

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 7an

46. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 7 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

EUSKERA ZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
2095 0000 74 2000089615

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 30 €.

Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.

Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Salla
Departamento de Cultura

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Diseinua, maketazioa
eta inprimaketa: Ibegrafik
www.ibegrafik.com

LANDAJUELA, Anton, XI.



Arrapaketa

Egun baten, eriotz-epaiaren astuntasunik oraindik nabaitzen ezgenduala, sartu barritan, izkillundun gizonezko bi jarri ziran barrurako atean begitarte ilunez barruratuteko dei egiten euskuala. Zelan sartu, alan arakatu ta kendu; diru, ezkon-eraztun, samako dominak, ordulariak, idazkortzak, aitzo, supiztugalluak t.a., etxe-koandreak ollo ila izten dauan lez itxi ginduezan luma barik.

Banaka ta binaka sartzen gintzazan. Atzeratuak aldi geiago be ba eukien da, baratzeko lurra atzaparka atxurto, al ebezan gauzak lurpean ezkutatu ebiezan, baña, dana zan alperrik. Urrengo goizean, gure arrapatariak baratz guztia atxurto eben emaitzik onenakaz otzarak betetzen ebezela.

Zorriak

Sinistu ezineko zorritzaren jaun ta jabe egin giñan egun gitxiren barruan, eta luzaroan be ezin astindu ta uxatu genduzan aldetik. Eun ilten genduzan tokian, lareun biztu edo jaioten ziran; zomorro pizti naskagarri oneikaz bekañetaraño bete gintzazan.

Italiarrak eta españarrak

Bustarripetu ondorengo lau-bost egunak, españarren estul garratza entzun baño len, italiarren menpe emon genduzan naiko azkataunaren erdian, ika ta adarra joten itzeginik alkarrri. Azurbaltzak oneiri txanda artu eutsoenean, ostera, eguzkiaren argi ta beroak makalagoa irudien aurrerantzean, eta izar-

tegia laño mendi baltzez estaldu zan urteetarako. Egun gitxi areitako italiarren nagusitzapean meza eder bat izan gendun abade espetxeratuak esanda.

Goiz baten onein agotik urtendako albiztea zabaldu zan, bai ta garatu be (Italiarren agotik): «Guda-landara dei dagizkue, bagoaz. Españarrak jabetuko dira zuen emen egoteagaz. Ezegizue arpegi larririk agertu. Gudaren daunbada otsak ixildu dira zuontzako. Eskuak odol orbanduta eztauzanak ba-kea izango dau eta etxera joan al izango da».

Ondoege genkian, zoritzarrez, españarren eskuak latzak eta baldarrak izango ziralta gose egarriz makal epelduta ziran giñanontzat. Alaxe gertatu zan.

Aldendu ziran ba, biotz samur, gure lenen jabeak, eta Jaungoikoak bakarrik neurto eikiazan nire biotz artegetuaren taupada ikaratiak. Nor ez zan dardar ikaratuko txanda artu ebenen begi inguru baltzizkiak, gose itxuraxko arpegi tximel, mutur zorrotz, ezpan ganeko sagu bizar, belarri aurreko ule-erpe luzea, gorrotozko begirakada ta eskueta-ko idixil makilla jolastaria ikustean! Gizon oneik espetxe barren zaintzaleak ziran, eta edurteagaz

egaberek baño ugariago ziran ate, orma ta ingurumarietan uztaia egiten euskuen «guardia de asalto» izenekoak. Gorengo etxoinean gengoanentzan naiko zeregin zan oneik eta kanariastik etorritako gudariak leio esi zear barrura jurtiten euskuezan berun-koskorra igeska ibili bearra. Eskerrak leioak goi zamar egozala, bestela Arratiarren izkuntzan, «an trageuko ginduezan».

Onein azpian jarri besterik ez, galdu zan gure ormarteko askatasun neurtua. Zigorkadak, bizkar saieti berotuteak, ostikadak edur matazako baizen ugari, maramara. Gorrotoak zabaldu eban, geiago ezinean, bere ego etoiak. Lapurketak, lenengoak ondo antzututa itxi genduzan arren, oraindik bizi ziran. “Gorrien” narruzko jake ta onetako onak begi onez ikusi ta begiratzen eutsoen, bai ta, lotsa gitxigaz eroan be eta okik egin gabe jantzi.

Guardia de Asalto bere biziko izena asi zan ba, makurkeririk makurrenak egiten, jaiotxetik eka-
rren berezko lapurketa gosea asetzen, iñorenagaz jabetuz kontzientzi baltzaren egarria ilten, begi arrapalariai atsegin emoten. Diru usaiñik zan lekuan eskua sartzen. Lenengo ekitaldian amuari

igez egindako arrañak (ordulari, eraztun, domine edo beste edozer gogoko) kolkoratuten.

Salobarri oneik gose zorrotza eben aldean, jaiotzatik, eta apika, gazte ziranean irakatsi onaren bidez gizendua, lapurketa.

Erpetarteko olloak ondo lumatu barik jatera etzegozan, eta lanari pozez eta gogotsu ekinik, otzara barriak bete ebiezan, zabalak eta sakonak, narruzko jake naiz beste edozelako soin ganeko berogarri, ikusten ebezan itxura oneko oñetako ta abar.

Berunaren laztan garratzaren eriotz arpegia mendian ikusten eben gudari errukarrien azken lagunak (apaizak) be arteko genduzan gizon iltzalle borrero gizan.

Meza esateko gaiak, arre naiz zillarrezko, mendirik-mendi, arrurik-arru, sasitarte ta atxarte ibili arren txukun eldu ziran baitegi onetaraño. Baña emen, ormatartean, bigarapen txikerrenik be ezeben izan txori pitx lapurrekandik. Kendu gogorkeriz ta amorrus eskuetatik eta nastuak izan ziran len lapurketako gauza guztieakaz, burdin zati zar ugertuak izan balira lexe.





Egunkari ta aldizkariak ezeben barrurako biderik. Inguratuten ginduzan ormatzar arritsuaren leio ta zulo bakoitzean gudaria ta izkillua beti gertu, eta ate nagusian bi, sei edo amabi onako. Etxetik bialtzen euskuen zer guztia arakatu bear izaten eben, ixillekorik ezin sartu, baña, plakadun zuloen bat zabaldu zan eta andik sartu zan guzur ta abarrez lodi-lodi egindako izparringia, eta ona emen berak azaltzen eban ataltxo bat: «Españaren aurka guda egin daben gudari euskaldunak oker egiña autortu ta damaturik, gogo onez ta biotzez emon dauskuez soñerakorik onenak, ainbat eta ainbat diru a. ta a. España beroñarritu, jaso orañarteño-ko ezinetik eta zuzentasun bakean guztiok pozez izan gaitezen». Txerren zar maltxurren artean iñoiz izan eta da, Patxi korotz zaleetan dagon narrukeria ta zurikeria? Dana da guzurra, guztia mokola.

Gure dirua, Euskadikoa, «ez zan ezertarako gauza». Soñekoak «zorri-abi», baña lapurreta aurrera, beti, eta askoren artean eta onarte azaldukoai beste bat ezerrik, au bere azaldu nai dot. Gabeko txanda artu eban espetxezaña soñeko prakak bakarrik eukazalako edo..., emen dator nire aldame-

neko gelara, idigi dau atea, barruratu da, ta, sagua artaburuagaz bezela, eskuan prakakaz aldendu zan.

Arri gogorraren ganean etzunda egon zan praka jabea gaberoko barren ikarak jota, lo etzegoan, lo itxuran irudian ezer esateko, baña, ausarpenik ez, ezta ez tul egiteko be. Guztiontzat legezko ordua eldu zanean jagiteko, aurkeztu zan, orraitio, lapurra baño nagusiagoarengana erdi makur ta atorraren barrenari berantz egiñaz, eta, alako atxurrik! itz erditxo bat esan barik emon eutsozan prakak bere jabe erdi bilutsari.

Beste izparringi baten ataltxo bategaz jabetu gara eta emen dabil ezkurik-esku, eta aita-semek agertzen dira. Aita da idazlea. Berak diñoandik balitzake bere usteetan aingerua izatea. Nire eretxiz oster, goiangerua, baña... odol-egarriz bizi da. Zeruetatik etorritako aingerutxu au Bilboko Larrinagan euki dabe «gorri txarrenak», lotsa bako txarrak, eta zer edo zergaitik barruan izan bada be, onduta atera danik ez dirudi. Ontzi zar bana emon ei eutsoezan janaria artzeko, eta lotarako zorritz jositako estalki berogarri bana, onein ordezkotzak lana eskatzen dau su izkilluentzat, gizon aragia ta odola lurraren-



tzat. «Desperdicios» izenordea jartzen eban idazlanaren orpoan, au dogu «Banco de los Pobres»en asmatzallea. Askorentzat zeruko gorengo txoria, baño niretzako, bere lanak ikusita, gogoko eztaun lagunaren gibel ta azurrak begiak itxi barik jango leukezana.

Zikiña, zarra ta txarra zan lau egodun goi aingeru aita- seme bikote onek artu ebana Bilboko Larrinagan. Zerbait zan. Zer eztegu esango guk, agoko ortzak eta atzazkalak izan ezean guztia kendu ba dauskue, urdallari ta sabelari txera egiteko gure aurretik ziran giltzaperatuak itxitako pixontzi zar, zikin, atsituan janari naste-borraste saldatsua egiten dogun ezkerro! Gabeko etzanalditako (lotarako) arrizko bee gogorra saiets eta azur bigungarritzat, eta, berogarritzat, otzaren dardar-ikara baretu eziñik ondoan gendun laguna. Mikel goi-anguruak, Euskalerriko zaindariak jarriko ba leuz bere aztakiñaren alde bakoitzean “gorriak” eta “zuriak”, zeintzuk egingo leukie gora ta zeintzuk beera? Josepeteko landan alkartuko gara artzak eta ardi-narudun otsoak, itxaro daigun ba.

Urrillak 5

Epaiaketak asi dira, eta ogei-ogeta amarreko taldeak moltzotuten gara epai-maiaren aurrean.

Epalleak, zertan esanik ezta, Jaungoikuaren ize-neko begirakada zorrotz otzak. Bekokia tximel ilun, biotzean indarraren arrokeria, odol egarria. Talde bakoitzean ekinaldirako gertuta izaten eben barri-lapikoa nekatu ta ustuten zanean, tokiaz aldatu egiten ziran zeregin barriak arturik, eta batzuentzat aita errukior agertu zana, beste batzuek txerren zital salatari, sugegorri iguin-garri. Ezeuken gure zer entzunik, eurak egin ta deuseztu, ezpanetan bitsa, itza ta aparra, zerurantz begiak biurtu ta aginduak Jaunagandik artu balebez lez, ta eskuagaz paparra estuturik eriotz-zapi baltzagaz estaltzen ginduezan. Azken mallako zigorra zan.

A zan, a, milaka gizoni errez ta pozez eriotz-atea zabaltea. Arrotzen indar keria ontzat artu ezgendlako, jaiotzatik gogoz eta biotzez maite gendun Aberria (Euzkadi) zaintzeagaitik, Urtzi Deunak emondako bizitz-neurria laburtu euskuen, Urkamendian edo suizkilluz ilteko aukeratuak izan giñan, eta lotsaz eta bildurrez txiro, ta indarrez arro ziran jaun kementsuak, buru ganeko egur igarreaun untzez josita dindiliz zegon Kristo gurutzatuaren azpian zegozan, eta Kristoren eredu egiazkotzat autortzen ziran gizon txatxuen azken berbak, au izaten zan il, il, eta il.

1935gko gararilla-ren 18an. Ala-en semeak, Hitler-en gudari kristautzarren arerio zitalak, Mussolini-mutillak eta españar kristau azaltsuak alkartuz sortu eben lege barriko katoliku uskur-tzaren biztute ta ondorioak ziran. Gatz, piper-min eta ozpiña nasturik janari gozorik egin ezin ba da, zelako eleiza jaso ta osotu leike lentxoago aitatu dodazan lau gizon motakaz?

Urria-ren 7gn

Eldu dira itxaroten nebazan eguna ta ordua.

Ogei?, ogeta-bost? Eztakit ziurtasunez zeinbat izan garaien inpernu-txakurren aurrera aurkeztu garaenok. Goi-mallako itzen astuntasunak, ostera, belarrian ondo jo nau, makurtu nau eta luzeroan izango dodaz gogoan (bizi banaz) berba bi oneik: "il" ta "eriotza", "eriotz" eta "iltea".

Amaren epeltasunik barik aziko biotz usteldun txakur odol-egarperak, Aitor-en ondorengoentzat, guraso eskaldunen semeentzat, begirapenen izpi pitienik ezeben izan. Gure bizia, osasuna ta eriotza, ta, aizearen agindura dantzatuten dan zugatz-orri tximela bardiñak ziran, lur onetako zeregiñak amaitutakoak, baña guk ezgenduan uste bardiña. Beraz, ez gintzazan koldartu ta makal indargetu, irriparretu ta erdi jostalari jarraitzen genduan alan zalakoan, luzero jarraitu ezpagendu be era onetako izatean.

Gau zapelatzak gosetu dira. Txita, ollasko noiz gizon-aragia jan, bardin dautsoe, eta, badaroad le-nengo gizona eriotzara

Manuel Egidau dogu bearau, Portugaleteko da. Perezagua izeneko gudari taldearen burua.

Gizon onegaz artu-emonik eneban izan, eta, eneban ezautzen bere barren-gogoa. Entzutez nenkian abadekia ezala, eleiz-zalea bez, baña eriotzaren garratzak eraginda, Jaunagaz bakeak egitea erabagi eban. Eriotzea etxeko izango dogu aurre-rantza.

Aldiaren joan-etorriak urillaren amaboskarren eguna dakarsku. Giltz eta morroilluen kirrist-karratzak entzuten oituak gagoz, baña turuta-otsak eztirudi betikoa, eztau oiartzun bardiña. Aizaren usaiña be ezbardiña da, goizak ixilagoa dirudizku jakuz.

Giltzaren laguntzagaz morroilluak atzerakada egin dabe, atek iñoiz goizago idigi dira. Gizonen eskuak katek lotuta alkartu dira. Munduari agur egiñaz doaz eriotzari paparra emotera.

Goitik burutik asi da aiotza lan garratzean lurra gizendu gurarik. Azkue-tar Erramon. Eusko Gudaroste Burua da aukeratu dabena. Amairu lagun erdian eroan dauskue betirako, atzerriko lurraren ongarri, arraren janari.



Euskalerriko ortzia azken aldiz ikusi dabe, urrine-
tik. Jaioterri lur maiteari mun egiteko zoririk ezta-
be izan. Eta Euzkadiren azkatasunatzaz egindako
amets sakonak an jarraituko dabe, gizaldien gizal-
dietan aragi ezereztuz igar ta billuts iraungo daben
azurren lagun ta adiskide.

Agur, Azkue, ta ondoan dozuzan euskal-
seme bu-
lartsuak. Agur gudari zantsu, kirio indartsu, arro-
tzen igitarpean burua makurtu bear izan dozuen
oi. Eguzkiaren bero galdak, kaskabar eta aizearen
ekiñak eztira izango naiko, alperrik izango dira
muker eta setati, Euzkadiren azkatasun lorratza
atzindu ta ezer-
eztuteko. Borreroen aizkorapean
galdu dozuen bizitza abertzaleak emaitz ugaria
izango dau. Ezgara epelduko. Euzkadi bizirik
iraun arazoten aleginduko gara. Ezta ilgo.

Il onetan (urriaren 11 ta 12an) jatsi ginduezan goi-
ko gelatatik berengoetara. Eunkadak giñan, ezgen-
kian aldaketaren barririk, zertarako izan zan.

Urrengo egunabarrerarteko arnasa geunkan. Ur-
tzi Deunari eskerrak, baña, geldi egoteko agin-
dua emon eutson eriotzari eta ezaban lanik egin.
Lurraren ongarrizat aukeratuak izan giñala, zulo
sakonak gertauta zirala ta ekaitza oraingoz bake-
tu zala, erritik, Santoñatik etorten jakun abadeak

iragarri euskun egunak geroago. Franco-ren artal-
deakoa irudian, sartuteko ta urtetako, atea zabalik
ebazan.

Gure balarrientzat etzan alboka-soña eztsurik,
ezta txistuaren gozotasun zolirik, bai orraitio, bio-
tzetik ezpanetara bitarteko arnasak uguziten ekian
«ai, ama» mamitsu entzun eziña.

Begien atsegiñerako be ezgenduan margo ezbar-
dunik, ez-ta pitxi dizdikorrik. Guztia iruditzen jakun
bardin samar, ilun, baltzizka, surrean joten gin-
duzan aizeak barriz, aragi ustelaren kiratsa.

Eskerrak emotera beartuta nago barriro be zeru-lu-
rraren Egilleari. Zer izango ete zan gutzaz Kristo-
ren jarraitzalle barri, bakar eta zuzenen atzapar-
tan izan bearrean Judioen buztar edeakaz lotuak
izan bagiña? Eztakit zer nolalakoak diran Kristo
gurutzatu eben semeen semeak, baña berbak agoan
ondo beroto ondoren diñotana au da Judioak mai-
teago dodazala. Eta sugedorriak sama ta lepoan ki-
ribildurik bizi gurago neunke españarren ezten go-
rituaren sastadak barriro ezautu baño.

Albiste bat txarra zabaltzen bazan, urrengoa gaiz-
toagoa izatea zan. Erletegiko zurrumuruaren an-
tzerako zerbait errotu zan gure belarrietan, barrua
artegatu, ta, alako kili-kili artegea sortzen euskuan



soñu motela zan, eriotzaren deia. Jaungoikoa go-goan, eriotzaren soñua belarran, aberrimiña biotzean, gabaz lorik ez eta egunez amesetan, era onetan emon genduzan urteak iru espetxetan: Santoñan, Bilboko Larrinagan eta Burgosko nagusian.

Azken-agurra

Azkue ta Markiegi etziran aiztu beste ilketa bazuetarako bizirik gintzazanokaz, eta ingi-orritxu bat bialdu euskuen, ezkurik-esku, esaten: «Ez izan bildurrik. Alegindu zaitezte biozdun agertzen, ago baltzdun izkilluen aurrean, eta gorrotorik ez izan iñorentzat».

Ago baltz eta min ustelez uguzitako berbak be emen dodaz, gogoangarriak dira: «Vamos, hombre. Dese usted prisa que ya va perder el tren, y para nosotros seria una pena». Gizon madarikatu oneik eta oneilakoak dira España barria, zabala ta andia, baketsua ta zuzena egingo daben argin kristau katolikuak.

Mamorroak, zorriak

Nire etxeok ezekien nondik eta nora nenbillan eta non nintzan. Zorri-landa biurtu nintzan oñetatik burura. Soñekoak atsituta, garbiketarik ezin egin, idaztea galerazota.

Baña... tira. Nonbaitetik eta norbaitengaitik albiztea izan eben bizi nintzala, ta non ta zelan nengoan. Laster bialdu eustiezan soñerako garbiak, tartean etorran orri-mustur eskutuan urrengo goizean soñeko zikin zorritsuak kanpora bialtzeko esanez.

Bialdu nebazan, bai, ta ain ziur nintzan ilgo ninduela, orri-mustur bat bialdu neban soñeko tartan ondo ezkutatuta itza oneikaz: «Agur, amatsu. Eztaikit noiz arte, epaia beteko ba-litz, goiko zeruarte».

Amari bialdu neutzozan barri ta agur larriak andragei neban nestatillaren belarrietan ots egin eben. Tartean, idatzi dot kanpokoan laguntza artzeko, atea idigi zan apurtxuen bat, eta...ona emen non jartortadazan eskuetara idazki bi, bata ta bestea oso pozgarriak. Amak, biozdun izan eta Goikoari otoi egiteko esaten eustan, andra-geiak argazki bigaz bialdu eustan, otoi egiteko aginduak emon eta indar barriagaz sutu nindun.

Bein batari, bein besteari, amaika begirature sakon zabal izan nebazan argazki bakoitzarentzat. Gogoa-

ren begi bategaz lorategi usaintsu politenak ikusten nebazan urrineneko etorkisunaren orpoan. Bestegaz ostera, ondo bako zulo sakonak, ilun-baltzak, illerriak, eta gurutzak, eta beti ta beti, bigarren ikuspegia nagusi.

(Jarraituko da)



Gaztaiña-saltzaille zaarra

EUSKERAZALEAK ALKARTEA. BILBAO.
2012ko SARI LEIAKETA. bostgarren saria



Ni jaiotzen nintzan urian, gaztaina saltzaille zaar bat bizi zan, naiz eta dirutan oso txiroa izan, oso sendo eta aberatsu zan barruko bizitzan.

Izan be, bere Keinuak, eroapena eta maitasuna, urreratzen jakozan notin guztiei, agirian ixten eban emakume zaarraren benetako nortasuna.

Ez eban berba askorik egiten, baña bai oso zuur eta etorkor.

Egia esan, aren izakerak luze irauten eban urteetan zear, eta orrek argi adierazten eban oso notin jakintsua zala.


Gaztaiña saltokia nabarmena zan; eta bertara urreratzen ziran notinek, ez ziran alkarrizketan asten emakumeagaz.

Oso notin ezkutuzkoa zan, eta orrez gain, ba eukan erakarpen berezi bat.

Sorginkeri eban lagun lez beti: Neguan ikusgai egoan eta gero desagertu egiten zan.

Ezezaguna zan baña oso iraunkor bere zereginen.

Otzagaitik eskuak arrakalatu eukan; eta orreek erakusten eben beraren iraunkortasun andixe ogibide zaar aretan.



Bearbada, aren etxea Bilboko Zabalgune Zaarrean egongo zan, baña iñork ez daki ori eta aurki, ez da inoiz jakingo.

Saltokia xaloban zan: galdara baltz bat ikusten zan barruan, gaztaiñak berotuteko su geldi eta bigun batez; eta dana egokিতuta egoan eguraldi txarrerako.

Izakerak argitu gura eban nortasun berezi bat. Izate maza la zan nagusi eta oso zuur lagunakaz artuemonetan.

Zapi baltz bat agirian buru ganean; eta jantziek emoten eutsoen itxura berezi bat, lanbide ori be beste aldi batekoa zala gogoratzen eban.

Gaztaina -Saltzaille andreak, Bilboko arrasti otzetan jaki goxoa saltzen eban.

Sutondoan jesarri oi zan illuntzean, batez be, tresnak artu eta desagertzeko unea elduten zanean.

Alfonso Ezkurdia
Zintzo



Juan Jose Ibarretxe



Korrikari buruzko jarraipena egiten ari dira Aiaraldea.com webgunean. Bertan lekukotzak jasotzen asi dira, eta leenengoa Juan Jose Ibarretxe lendakari oiarena da. Lizentzia libreei esker, ona ekarri dogu.

Aitortu bear dizuet, ez nuen uste posiblea zenik berrogei eta piku urteekaz euskera ikastea eta are gitxiago euskeraz bizitzea; baiña onetan bere ustea ustel, ez da orrela. Ez da egia, beraz, gaztelaniaz esaten dan esaera ori: loro viejo no aprende a hablar. Zein ote da, orduan, gakoa euskera edo beste izkuntza bat ikasteko? Erantzuna, nire ustez, argi eta garbi dago: maitasuna.

Maitasuna da klabea ia gauza guztiak lortzeko bizitza onetan eta nik euskera maite dot.

Niretzat euskerena “bizitza proiektua” izan da, nire bizitzako proiekturik garrantzitsuenetariko bat. Alabekin ainbeste urte gazteleraz mintzatu ondoren orain euskera dogu gure famili izkuntza. Eta, jakiña, gauza bat da edozein alkarrizketa arrunt euskeraz egitea eta beste gauza bat barruko sentimenduak adieraztea. Orrek aldaketa kulturala dakar zure baitan, zure bizitzan, esperientzia ori bizi izan ez duen euskaldun batentzat, pertsona batentzat, ulertzea zaila da. Orregatik ere euskerarekiko nire esperientzia zoragarria da, mundiala da.

“Bidaia” benetan polita da euskeraz bizitzea, lan egitea, kirola egitea, atsedean artzea. “Bidaia” polita euskeraz kaleratzea eta nazioartera zabaltzea, munduko plazan jartzea. Ogei eta hamar urte exekutiboa izan ondoren -arloan pribatuan, naiz publikoan-, orain Unibertsitatean nago, ezagutza eta jakintzaren arloan, baiña nire lanak eta aaleginak bardiña izaten jarraitzen dau: geure erria -Euskadi edo Euskal Erria-, geure kultura eta geure izkuntza, munduko plazan kokatzea. Eta “etxean” -Euskal Errian-, zein Españan, European edo Amerikan, euskera erabiltzen dot konferentziak emoteko, nire lanak aurkezteko. Eta orregaz batera adierazten diot jendeari, guk, euskaldunok geure izkuntza -munduko izkuntzarik zaarrenetariko bat- itz egingo ez bagenu inork ez lukeela egingo eta orduan guztion kultura unibertsala ez litzatekeela aberatsagoa izango, baizik eta pobreagoa.

Aurtengo Korrikaren leloak dion moduan: emon euskera alkarri.



IZADIA ZAINDU EUSKAL TOKI-IZENAK MUNDUAN ETA EUSKAL EDESTIA X.



5.4. Asia, Ejipto, Grezia, Ario ta Indoeuropeotarren alderraitasunak eta Etrusko agerkeraren edesti laburak.

Asian ikusi dogu, Sargon asi zala kaizertzaren sortzailletasunetan, eta aurrera begira, antziñeko edo aurretiko erabagi txar ori⁽¹⁾ garaipendu arte ez zala geratu, areik eta 1800 urte beranduago Griegoak medikaseko gudakaz geratu arte.

Aurretiko erabaki txar ori, aundikien bidez gurtza maillara igonda, Afrikan be bardin sortu zan, eta mundu Fisiko oneitan norberak besteak menperatu gure dabezenean sasi norkerizko izkuntz ta oi-

tura txar orreitan ezartzeko alegiñean, ikusi dogu zer gertatzen dan.

Orregaitik, egoera orreitan argi guztiagaz nabaritzen dana: Sasi jainkotasunean bizi gura dabenentzat, sasi asmakizun orreik jainkutztat lez goraldtu eta gurtu bear dabezala.

Sasi ekintza orreik nai ta nai ez, eta derrigorrez elkargarrizkoak⁽²⁾ biurtzen diralako: Gauza txarretan iraun gura dabenentzat, Gauza txarrakin elikatzen joan bear dabelako.

Ekintza orreik, izkuntz eta oiturazko siñismenetan naste aundiak sortzen dabez, eta batez be, nastezko⁽³⁾ izkutz barriak sortu.

(1)Erabagi txar ori = precedente. (2)Elkargarrizkoak=compatibles.(3)Nastezko= rom-ances similares cuando se trata de dos lenguas en -frentadas, como en el caso del Euskera Latin, aun-que el latin sea prefabricado, porque se construyó para imponerse a las lenguas naturales.



Paleolitiko Neolitiko bitartean lortu ziran Demokrazizko oiturak, erri edo leiñu artean, ordearen ardurazko lotsak bikain zaindu ziralako izan zan.

Eta sasi asmo barri orreikaz Ekanduzko beko mailan geratuta, Erdi Aroko goialdetik asita, edesti guztian belaunez belaun etorri gara, bakezko elburua eskuaren neurrian eukinda eldu ezinik, bitartean, norkeriaren katolikotasunezko batzangotasun asmo txar ori, beartuta ekarten dogulako.

Ez da gauza aundirik bear, bakarrik berezko legeari baietza emotea baiño ez dalako.

Baiña, Munduko jakitunak aurrekoi oinkanda orreik emoten ez dira ausartzen, antza, lotsa emoten dautsielako oraiñarteko irakaskintza BEREZKO LEGEAREN albotik etorri dala esaten, eta naste orreikaz jarraitzen dogu.

Noiz arte baiña ?.

Gaiñera jakinda BEREZKO LEGEA Damoklesen ezpataren antzera, buru gaiñetan daukagula keiñatzaille⁽⁴⁾, gaur sortzen dan lez.

Gaurko Sozialistak esaten dabe Mestizaje para una ciudadanía del Mundo. Zertarako jaio ziran beaztu jakie, PPren beste menperatzailleak biurtuta.

Endaren nortasunak nastutea, nortasunaren oiturazko sinismenak nastutea da, eta ortik agertu leiken gauza bakarra, onbear⁽⁵⁾ edo txirotasun galantatan egokitzea da gaurko egunetan sortzen dan lez.

PP ta Sozialista menperatzailleentzat bai ondo, erreka loietan arraiñak errez arrapatzen diralako, eta orrein billa dabiz zalantzarik gabe, kloniko batzango baten bizi gaitezen, euren sasi-agintaritzaren mesede.

(4)Keiñatzaille = *amenazador*. (5)Onbear = *indigencia, necesidad*.

Asiatik, Ario ta Indoeuropeo alderraiak ez eben egingo alde ba ?. Nai ta nai ez !.

Baiña, Etruskoak egon ziran Arno ta Tiber ibai bitartean⁽¹⁾, eta Asian ta Afrikan egin zan lez, eurak ipiniko ebezan ibilten erromatar asmakizuneko menperatzail eritziak, Europa osoan Jainkoak Mundu oneri emoneko Bereztasuneko Legearen egia zirriborrotzeko.

5.5. Billaketazko azterkuntzan ibili diranai, goragarritzko izen on.

Ezin dodaz aipatu barik itxi: Izkuntz, izen toki, azur, margo, giza izti eta abarrezko billaketaren azterkuntzan ibili diranai, nai ta egiaren billa ibilita, menperatzaillaren berekoitasunarengandik oztopo aundiak euki, edestian zear, arrigarritzko azterlanak egin dabezelako.


Azterkari maisu andi oneik, Asia ta Afrikan lenengoz, toki izen ta edestiko lan bidez Izadi onen Omo Sapiensen asierara joanda, arrigarritzko egoarriagaz eroan⁽²⁾ bear izan eben, ondo-

rengo kaizar menperatzaillak eskuetan pintzel edo ixipu aundiak artuta, euren asmakizuneko eritziakaz⁽³⁾ zelan margoztu eben erri bakoitzaren edestia ikusi ebenean, euren eten bako azterkuntz lan ederrakin, arrazoi edo egiaren illuntasunak argira agertzeko.

Arritzekoa da, kaizar-menperatzaillak erri bakoitzaren edesti gaiñean ainbeste margo esku emon eta gero, maisu aztertzaillak oneik, ebaketariak⁽⁴⁾ egiten daben antzera, margoaren esku aldi bakoitzak kontu aundiagaz zati txikerretan erauzita⁽⁵⁾ azpikoa ez daiten ondatu, urte askoren ondorioz zelan eldu diran oiñarritzko egira.

Gaur erdikusten baiño askoz geiago asi dana, eta emendik aurrera jakintzazko arlo guztietan dagozan almenakaz, gero eta errezago izango dana, eurerei esker.

Joan gaitezana ba, mundu onen errigizarteak klonezko batzango baten jaurkitu gurean, non ta noren norkerizko asmakuntzarekin asten dira, txandako menperatzaillak orreik ixipua⁽⁶⁾ eskuetan artuta Europako lurak eta errigizartearen Nortasunak ez daitezana ezagutu, osterako margoztzen ainbatgarren aldiz aleginduten diralako.



(1) Arno ta Ti-ber ibai bitartean = Asia Txikerratik etorritakoak ?. (2) Egoarriagaz = paciencia. (3) Eritziakaz = opiniòn, parecer. (4) Ebaketariak = cirujano. (5) Erauzita = hacer saltar. (6) Ixipua = brochas.



3n. ZATIA .

1. Leenengo eta bigarren zatiaren aipamena.
2. Erromatarren sarrera.
3. Etruskoak, latiñaren jaiotza eta Erromatarrak.
4. Katolikotasunaren onartzea eta ondorioak.
5. Godo´ak.
6. Erdi-Mende au, Mauritarrak artean dirala.
7. Erdi Mende onetan, Eleiza Katolikoaren nau-sitasuna.

1. Leenengo eta bigarren zatiaren aipamenak.

Lenengo zatian ikusi dogu, zelan menperatasunaren asmokoak, nai ta Asian eta Afrikan, leiñuen errigizarteakaz, len-izkuntzak eta toki izenak nas-piltzen ibili.

Maltzurrezko asmakizun orreitan garaipenduta egon arren, errigizarteak morroitzeko eta toki izenak aienatzeko⁽⁷⁾, ez dabela oldozmeneko ustean indar geiegirik euki, Jaungoikoak Beren bereztasu-

nezko lege bidez bizitzari emon eutson “Baita”⁽⁸⁾, nastu bai, baiña ezereztu ezin dabelako egin.

Leen: Mundu oneitan jaioten dan gutzia, oiñarrizko baita orreitan jaiota, aurrekotasunezko⁽⁹⁾ almen orregaz, errez oartu edo konturatzen gara, nortasunezko baitaren aurka dirala norkeriaren asmakizunezko alegin guzti orreik, Izadi onek daukazan berezko eskubide guztiak zapalduz, euren sasi asmakizunetan indartzeko.

Euskalerrria da, Omo Sapiens sortu zanetik, Paleolitiko Neolitikoaren bitartean lortu zan jendekuntzazko Jakin Demokratiko ederraren ikusbegi edo Aitorlari.

Gai al izango ete dira, ezereztuteko ?.

Ez dot uste: Jainkoa lagun, euskaldunak gura ez ba dogu.

Emen bearrezkoa da aipatzea, Arana-tar Sabi-nok, 1901ean Arantzadi-tar Ingartziri⁽¹⁰⁾ Urtarrillaren bosteko eskutitzan esaten eutsona: **“Jaungoikoa izango ete da ba, gura ez dabena, gure Euskalerrri maite au aienatu edo ta suntsitu ez egian ?”**.

(7)Izen tokiak aienatzeko=anular, revocar los nombres de las cosas denominadas. (8)Baita = conciencia. (9)Aurrekotasun = precedencia. (10) Arantzadi-tar Ingartziri = “Kizkitza”.



Bigarren: Mundu fisiko oneitan, gizar-tearen belaun aldiko etorkizunean, ekin-tzak jakin-tzazko azturan sendo oiturtzen ba dira, ta sinismenean ikasitakoak, berbeagaz mugatu, izendutako toki eta errigizartearen ekanduzko gauzak, nekez aienatzen dira, Munduan Euskal toki ize-nari eta Euskalerriari sortzen jakozan lez.

Orduan, aztarna ugari geratzen diranakaz eta ez gaitezkan milla urte askotan ikasitakoarekin aztu, naaspiltzen garanean edo egiten gaituenean, konturatu bear gara, non ebatzeko elduleku ugari geratzen jakuzela, Euskal Nortasunez argizabalera agertu gindezkan.

Atutxa'tar Paul

Zornotza'n 2013an Urtarrillaren 15ean

Zazpi utsak



IPUIN SARIKETA

Mesedez bialdu CD edo disketea

EUSKERAZALEAK ALKARTEAK, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuinak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearco dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZAK argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuinak asmatuikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER-en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.
- Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEAren etxean (Bilbaoko Colon de Larreategi, 14, 2^a eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer-en agertuko da, Urterrillean.
- Sariak bost izango dira:

1. ^a	300 euro	4. ^a	120 euro
2. ^a	240 euro	5. ^a	60 euro
3. ^a	180 euro		
- Ipuinak izen ordegaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.
- Epea azillaren azkenera arte.

EUSKERAZALEAK

ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar

..... kalean (auzoan..... zenbakian

..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,

an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN "ZER". Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

Din dan don, din dan don!
Eguberri on!
Zorion, zorion!
gabonak, din-dan, don!
Din dan don, din dan don!
Eguberrion!
Zorion, zorion, Gabonak Gabon!

Izar bat asi da dizdizka zeruan
berri onak zabaltzen ari zaigu munduan.
Jaio da, jaio da, Jaunaren semea,
askatxo batean dago, lastoen gainean.

Din dan don...

Aingeruak kanta, artzain onak dantzan,
Jainkoaren jaiotzan Pakea eta Aintza!
Astoak, aja-ja! Idiak, muu-mu!
estalpe zaarrean kantuan ari zaizkigu.

Din dan don...

Antxon eta Peru, artzain buruzuri,
izarrari jarraika biak datoz arinka.
Menditik barrena, aurtxoarengana,
artzain bakoitzak darama arkumetxo bana.

Din dan don...

